

Arriaga Antzokiak *West Side Story*, historiako musikal ezagunena eta sarituena, eskainiko du Aste Nagusian

- Broadwayko klasiko arrakastatsua abuztuaren 14tik irailaren 8ra helduko da, Bernsteinen jaiotzaren mendeurrena zela eta iaz estreinatu zen ekoizpen lan handiarekin.
- Leonard Bernsteinen eta Stephen Sondheimen partitura, musikalen historiako onenetakoa da, guztiek aitortzen dutenez.
- Arthur Laurensen testua lehen egunean bezain hunkigarria eta gaurkoa da, eta Jerome Robbinsen koreografiak ohorezko lekua betetzen dute dantza garaikidearen kondairan.
- Ikuskizun honetarako, garai guztietako musikal handienerako, sarrerak gaur bertan, martxoaren 20an, jarriko dira salgai, ohiko kanalen bitartez.

Bilbon, 2019ko martxoaren 20an.- Beste urte batez, **Arriaga Antzokia** Bilboko **Aste Nagusiaren** protagonista nagusietakoa izango da. Aurten, Arriaga antzokiak zaldi irabazlearen aldeko apustua egin du, Bilbora garai guztietako musikal garrantzitsuena ekarriz, **Broadwayko** klasiko handia, **Leonard Bernsteinen** maisu lana: **WEST SIDE STORY**. **SOM Producek** ekoiztu duen eta iaz, Leonard Bernsteinen jaiotzaren mendeurrenarekin bat etorritik, Madrilen estreinatu zen ikuskizunak hankaz gora jarriko du Arriagako besaulki patioa, abuztuaren 14tik, asteazkenetik, irailaren 8ra, igandera. Beraz, musikala ia hilabete egongo da karteldegian, eta 30 emanaldi programatu dira. Horrez gain, **Federico Barriosek** zuzendutako muntaketak badu balio erantsia, Winter Garden Theatren (Broadway, 1957) lehen aldiz eskaini zenean musikalak izan zuen jatorrizko bertsio osoa lehen aldiz eskainiko dela Espainian.

Lehen notatik azken arnaserara, *West Side Story* antzerki unibertsaleko musikal garrantzitsuenetakoa eta esanguratsuenetakoa da. **Leonard Bernsteinen** eta **Stephen Sondheimen** partitura musikalen historiako onena dela aitortzen dute guztiek. **Arthur Laurensen** testua lehen egunean bezain hunkigarria eta gaurkoa da, eta **Jerome Robbinsen** jatorrizko koreografiak ohorezko lekua betetzen dute dantza garaikidearen kondairan. Horien guztien eskutik, maitasun istoriorik handienak New Yorkeko kaleak hartzen ditu, garai guztietako antzerki musikaleko lan handienetakoa bilakatzeko.

West Side Story lanean, Arthur Laurensen New Yorkeko kaleetara darama Shakespeareren Romeo eta Julieta. Maiteminduta dauden bi gazte, kaleko bi banden arteko liskarrean daude harrapatuta: Jet “amerikarrak” eta Shark Puerto Ricoarrak. Gorroto, indarkeria eta aurreiritzi giroan bizirik irauteko aurrera daramaten borrokak antzerki musikaleko istorio hunkigarri, eder eta handieneteko bati ematen dio forma.

Garai guztietako musikal handiena

Arte adierazpenaren kategoria, formatu eta forma guztietan, West Side Storyk, "garai guztietako musikal handiena" izatera daraman bikaintasun artistiko eta komertziala erakusten du. 1957an estreinatu zenetik mundu osoan eten barik eskaini den *West Side Story* lanak, antzerki musikalaren alorrean dauden sari guztiak lortu ditu, historian zehar izan dituen bertsio eta berrestrainaldi guztietan.

Oscar sarietan 10 sari irabazi zituen zinerako bertsioa, zine musikalaren historian Akademiak gehien saritu duen filma da, eta film guztien artean laugarren lekua hartzen du. Estatu Batuetako Kongresuko Liburutegiak Zinearen Artxibategi Nazionalan kontserbatzeko aukeratu du, kulturaren, historiaren eta estetikaren ikuspegietatik duen garrantzia dela eta.

Musikalaren soinu banda, historian album salduenen zerrendan 1. lekuan aste gehien egon den grabazioa da (Billboard, 54 aste, eta bere ondoren Michael Jacksonen Thriller dago, 37 asterekin). Bertan dauden abesti mitikoen artean "**María**", "**América**" edo "**Tonight**" aipa daitezke, besteak beste.

Leonard Bernsteinen mendeurrena

1918an Lawrencen, Massachusettsen, jaio eta 1990ean New Yorken hil zen Leonard Bernstein **XX. mendeko musikaren ikono nagusietakoa** da. Estatu Batuetako lehenengo orkestra zuzendari "superizarra" izan zen. Mundu osoko orkestra nagusietara eraman zuen eta bakarlari ezagunenekin lankidetzan aritzeko aukera eman zion bere lanaz gain, kontzertuetarako, balleterako, antzerkirako eta zinerako lanak idatzi zituen. Jazzean eta musika garaikidean espezializatu zen, bere ahozko piezak bezain arrakastatsuak izan ziren musika-tresnetarako konposizioekin. Bere lan ezagunenak hauek dira: *Fancy Free* (1944), *On the Town* (1944), *Peter Pan* (1950), *Trouble in Tahiti* (1952), *Wonderful Town* (1952), *Candide* (1956), ***West Side Story* (1957)**, *Chichester Psalms* (1965), *1600 Pennsylvania Avenue* (1976) eta *A Quiet Place* (1983).

Mendeurrena ospatzeko, 2017ko irailaren 22an **Leonard Bernstein At 100** gunea inauguratu zen Arte Eszenikoetarako John F. Kennedy Zentroan (Washington DC), 2019 honetako abuztuaren 25era arte luzatuko diren mendeurrenaren mundu mailako ospakizun ekitaldiak bultzatzeko eta koordinatzeko. Ospakizuneko bi urteak amaitzean, sei kontinenteetan 2.000 ekitaldi baino gehiago egingo dira, konposatzaile, zuzendari, hezitzaile eta aktibista/filantropo gisa egin zuen lana aintzatesteko. Milurteko berrian, bere legatua inoiz baino gehiago entzuten da, eta mundu mailako omenaldi testuinguru honetan sartzten da uda honetan Arriaga Antzokira helduko den *West Side Story* ekoizpen lan handiaren estreinaldia. Federico Barrios muntaketa honetako zuzendari eszenikoak dioen bezala, "*West Side Story ez da printzei eta printzesei edo ezinezko ametsei buruzko ipuina, generoaren, muge eta arrazen gaintik gizakiari lehentasuna eman behar zaiola erakusten digun mundu osorako eta betirako istorioa da. Beti indarrean dagoen eta migrazioaz, beldurrez, onarpenaz, itzaropenez, barkamenaz eta, batez ere, maitasunaz berba egiten duen kontakizuna*". Horrela da, *West Side Story* betirakoa da, beti dago indarrean eta beti du gaurkotasuna.

Sinopsia

New York, 1957ko uda. Manhattan mendebaldea. Kaleko bi banda, Jet-ak (Estatu Batuetan jaiotako gazteak, Europatik joandako etorkinen seme-alabak eta bilobak) eta Shark-ak (etxalde handira heldu ziren Puerto Ricoko lehenengo etorkinak) lurraldea menderatzeko ari dira borrokan. Talde bien arteko liskarrek ezinezko bilakatzen dute auzoko bizikidetzak. Shark bandako liderrak Jet bandako kide bat zauritzen duenean, mendekua ezinbestekoa da. Erantzuna prestatzeko, Riff, Jet bandako burua, Tonyrengana, bere adiskide onena baina bandatik dagoeneko aparte dagoenarengana doa, borroka batean taldearen buru izan dadin. Tonyk baietz erantzuten dio eskariari,

auzoko nagusitasuna argituko duen borrokara batuz. Orduan María ezagutuko dugu, Puerto Ricotik heldu berri den Bernardoren arreba, New Yorken igaroko duen lehenengo gaua Institutuko gimnasioan antolatu den dantzaldira joanez ospatu gura duena. Bertan Tony ezagutuko du, eta horrek bien patua aldatuko du.

Sarrerak salgai jadanik

Gaur, asteazkenean, martxoaren 20an, jarriko dira salgai *West Side Story* ikuskizunerako sarrerak ohiko salmenta kanaletan: www.teatroarriaga.eus helbidean, 946 850 850 telefonoaren bitartez edo antzokiko txarteldegietan. Sarreraren prezioak 12 eta 59 euro artekoak izango dira, eta ohikoa denez, hainbat beharpen eta prezio merkeagoak izango dituzten ikus-entzulearen egunak egongo dira.

WEST SIDE STORY

JEROME ROBBINSen ideian oinarrituta

Libretoa: **Arthur Laurents**

Musika: **Leonard Bernstein**

Letrak: **Stephen Sondheim**

Jatorrizko Ekoizpenaren Zuzendaritza eta Koreografia: **Jerome Robbins**

Broadwayko jatorrizko ekoizpena, Robert E. Griffith eta Harold S. Prince, Roger L. Stevensekin elkartuta

Moldaketa eta itzulpena: **Alejandro Serrano eta David Serrano**

Eszena zuzendaria eta Koreografiaren moldaketa: **Federico Barrios**

Jatorrizko Koreografia: **Jerome Robbins**

Musika Zuzendaritza: **Gaby Goldman**

Eszenografiaren diseinua: **Ricardo Sánchez Cuerda**

Argiztapenaren diseinua: **Carlos Torrijos (AAI) / Juan Gómez Cornejo (AAI)**

Soinuaren diseinua: **Gaston Briski**

Figurinista: **Antonio Belart**

Jantzien ekoizpena: **Ana Llena**

Karakterizazioa: **Laura Rodríguez Domingo**

Zuzendaritza laguntzailea: **Ángel Saavedra**

Koreografia laguntzailea: **Luciana de Nicola**

Zuzendaritza teknikoa: **Javier Ortiz**

Casting Zuzendaritza: **Carmen Márquez**

Konpainiaren gerentzia: **Joaquín Roselló**

Eszenako borroka irakaslea: **Mon Ceballos**

Ekoizpen exekutiboa: **Marcos Cámara eta Juan José Rivero**

Ekoizleak: **Gonzalo Pérez, Marcos Cámara, José María Cámara, Juan José Rivero eta Pilar Gutiérrez**

SOM Produzerean eta WSS 100 Aniversario 2017 AIEren ekoizpena
Music Theatre Internationalen (Europa) lizentzia eskusiboan: www.mtishows.eu

ARRIAGA ANTZOKIA

Emanaldien egutegia

ABUZTUA

ASTEAZKENA	14	19:30ean ESTREINALDI OFIZIALA
OSTEGUNA	15	19:30ean
OSTIRALA	16	17:00etan eta 21:00etan.
IGANDEA	18	17:00etan eta 20:45ean.
ASTEARTEA	20	19:30ean
ASTEAZKENA	21	19:30ean
OSTEGUNA	22	19:30ean
OSTIRALA	23	17:00etan eta 20:45ean.
LARUNBATA	24	17:00etan eta 20:45ean.
IGANDEA	25	18:00etan
ASTEARTEA	27	19:30ean
ASTEAZKENA	28	19:30ean
OSTEGUNA	29	19:30ean
OSTIRALA	30	17:00etan eta 21:00etan.
LARUNBATA	31	17:00etan eta 21:00etan.

IRAILA

IGANDEA	1	18:00etan
ASTEARTEA	3	19:30ean
ASTEAZKENA	4	19:30ean
OSTEGUNA	5	19:30ean
OSTIRALA	6	17:00etan eta 21:00etan.
LARUNBATA	7	17:00etan eta 21:00etan.
IGANDEA	8	18:00etan

Informazio gehiago:
Komunikazioa - TEATRO ARRIAGA
Jon Rozadilla Urrutia – 652 738 307
comunicacion@teatroarriaga.eus
www.teatroarriaga.eus